

Saiakera

## **Oñatiko gazteak gatazka armatuaren aurrean: gatazka ondoko lehen belaunaldiaren diskurtsoen azterketa**

Egilea

**Samara Velte**

Gainbegiralea

**Vicenzo Ferrari**

*Lege Soziologiako Nazioarteko Institutua\**  
Oñati, 2018



### **Laburpena**

Lan honek aztertzen du zer-nolako berreraikuntza diskurtsiboa egin den euskal gatazka armatuari buruz Oñatiko biztanleen arteko gatazka ondoko lehen belaunaldiaren ahozko narratibetan, ikusteko nola eraikitzen ari den memoria kolektiboa eta nola transmititzen ari zaien belaunaldi gazteei ETaren atentatuak amaitu ostean. Planteamendu diskurtsibo-historikoa erabiliz eta bai banakako elkarrizketa sakonetan bai talde-saioetan oinarrituz, hiru alderdi nagusitan jartzen du arreta: nola kategorizatzen eta ebaluatzen dituzten nerabe horiek indarkeriazko iraganeko gertaerak eta aktoreak, zein neurritan identifikatzen diren kontatutako gertaerekin eta zein diren jakintzak eta jarrerak transmititzeko erabiltzen ari diren kanal nagusiak. Ondorioztatzen du nerabeek modu immaterialetan hautematen dutela gatazka, hala nola sentimendu eta aurreiritzi gisa, eta nagusiki hezkuntza- eta familia-diskurtsoez fidatzen direla iragana berreraikitzean. Aurkitutako hutsune nagusietako batzuk ere aipatzen dira lan honetan.

**Gako-hitzak:** gatazka armatu, gazteria, diskurtsoaren analisi, memoria, Euskal Herria.

*\*Ikerketa hau Lege Soziologiako Institutuak eta Oñatiko Udalak finantzatu dute, Oñatiko Udalaren 2018ko bekaren bidez.*

## I. Sarrera

2018an, Euskal Herriko egoera politikoa gatazka ondoko garai baterantz ari da eboluzionatzen. Izan ere, duela ia hamarkada bat, ETAk espainol eta euskaldun politikarien, polizia militarren eta zibilen kontrako atentatuak bertan behera utzi zituen, 2011ko urrian «jarduera armatuaren» amaiera iragartzeko adierazpena egin zuen (Euskadi Ta Askatasuna, 2011) eta 2018ko maiatzean erabat desegin zen erakunde armatu gisa, sortu eta 60 urte geroago eta operazio armatuak hasi eta mende erdi bat geroago. Uste dugu azken hamar urteok Euskal Herrian trantsizio-aldi baten hasiera izan direla, ez delako atentatu materialik egon, ETaren aldetik behintzat. Dena den, ez da bake-prozesu formalik egon eta gizarte-eztabaidak ez dira errazten ari, nahiz eta gatazkaren intentsitatea murrizteko, alderdiak elkarriz hurbiltzeko eta biktima guztiei egindako kaltea aitortzeko lagungarri izan litezkeen. Gatazkaren amaiera bera oraindik eztabaidatzen ari da, Espainiako alderdi politiko nagusietako batzuk eta ETaren biktimen plataforma nagusietako batzuk —ez dituzte, ordea, biktima gehienak barne hartzen— urrats gehiago eskatzen ari direlako.

Narratiba-eraikuntza eztabaidagai den testuinguru honetan —gatazka amaitu ote den eta, hala bada, nork amaiarazi duen eta alderdietako baten porrota edo garaipena izan den—, belaunaldi berri bat sartzen ari da agertokian. Gatazkaren indarkeriarik bortitzeneko aldiari (1968 eta 2006 bitartekoari) buruzko zuzeneko oroipenik ez daukan lehen belaunaldia da. 2000n jaioak —*millennial* direlakoak, saiakera hau idazten ari garen urtean helduarora iristen ari direnak— nekez oroituko dira euskal gatazkaren historiako atentaturik eta polizia-operaziorik garrantzitsuenez. Beraz, gazte horiek indarkeriazko iraganari buruz sortzen dituzten buru-ereduak kanpoko diskurtsoetan oinarritzen dira nahitaez, eta eraikitzen dituzten narratibak, aldi berean, testuinguru berrian kokatutako eta esanahi berriz hornitutako diskurtsoak dira.

Artikulu honen helburua da narratiba eta buru-eredu horietako batzuk identifikatzea, eta, era berean, indarkeriazko iraganari buruzko jakintzak eta jarrerak belaunaldi gazteei transmititzeko erabiltzen ari diren kanal nagusiak ezagutzea. Geroago argudiatuko dugun moduan, memoriaren eraikuntzak diskurtsoarekiko lotura estua dauka. Beraz, gure aburuz, diskurtsoaren analisi kritikoa tresna erabilgarria izan daiteke iraganari buruzko narratibak aztertzeko. Planteamendu psikolinguistikoaz eta diskurtsibo-historikoaz baliatuz, azterlan honen xedea da jakitea zeintzuk diren belaunaldi gazteek erabiltzen dituzten hizkuntza-estrategia nagusiak indarkeriazko iraganari buruzko memoria berreraikitzeke eta kontatutako gaien inguruko jarrera hartzeko. Gainera, analisi hori baliagarria izan daiteke belaunaldi gazteagoen ingurunean gailendutako diskurtsoetako batzuk identifikatzeko eta, hortik abiatuta, ikerketa sakonagoa egiteko edo gazteen arteko adiskidetze-jarrera eta -asmoentzat mesedegarriak izan daitezkeen esku-hartzeak proposatzeko nola hezkuntzaren hala erakundearen eremuan.

## 2. Esparru teorikoa

Ikerlan honen testuingurua memoria-ikerketen eremuaren baitan kokatu behar da, eta diskurtsoaren analisia proposatzen dugu memoriaren transmisioa aztertzeko tresna metodologiko eta teoriko gisa. Zenbait egilek, hala nola Maurice Halbwachsek (2004) eta Pierre Norak (2002), memoria kolektiboaren eraikuntzak nortasun kolektiboaren eraikuntza dakarrela frogatu dute, eta diskurtsoaren ikerketek eraikuntza horiek hizkuntzaren bidez nola gauzatzen diren ulertzen laguntzen digute. Ideia hori bat dator Fivushen (2010) narratibaren inguruan duen ikuspegiarekin, honako definizio hau ematen baitu:

«Iraganari buruz zer kontatzen den eta nola kontatzen den funtsezkoa da zer gogoratzen den zehazteko. Narratibak gizarte-elkarrekintzetan sortzen dira, zeinetan gertaera jakin batzuk eta bereziki gertaeren interpretazio eta ebaluazio jakin batzuk balioztatuko diren. Kontakizun anitzen bitartez, narratibak iraganaren ebaluazio-bertsio onartu (edo eztabaidatu [...]) bihurtzen dira» (Fivush, 2010).

Beraz, informazioa eta memoria transmititzeko prozesu orok, halaber, tartean dauden gizarte-taldeentzat esanguratsuak diren elementu batzuen artean aukeratzea dakar transmisioa gertatzen den egoera zehatzean, eta beste elementu batzuk ahaztu egiten dira. Prozesu hori oso lotuta dago diskurtso edo narratiba gailenak ezartzearekin; horiek, Shahzadek (2011) adierazten duen moduan, «memoria-teknologiak» dira, komunitate epistemologiko jakin batek gogoratuko duena *daramatelako* eta, horrenbestez, haren nortasun kolektiboaren osagai bat izango direlako.

Ideia hori diskurtsoaren analisi kritikoaren (DAK) printzipioei lotu dakieke, hizkuntza gizarte-harremanen barruan txertatutako gizarte-jarduntzat jotzen baitu eta aipatutako gizarte-harremanetatik sortzen diren eta horiek itxuratzen dituzten botere-harremanen jakitun baita: boterea daukaten taldeek hizkuntzaren bidez ere baliatu ohi dute boterea, hizkuntza-kapital moduan (Bourdieu, 2008). Sortzen ditugun diskurtsoak, alde batetik, gertaera diskurtsiboa jazotzen den gizarte-egoeren barruan dagokigun kokapenaren bereizgarriak dira, eta, bestetik, *status quo* kopia eta indartzen dute (Bakhtin, 1979; Lemke, 1995; Jäger, 2004). Horregatik, hainbat egileren (besteak beste, Foucault, 1970) interpretazioaren arabera, diskurtsoa indarkeria mota bat da, diskurtso gailenak sortzeko botererik ez daukatenei ezartzen zaiena. Talde horiek, sarritan, aitopenen gabeko edo gutxiengodun taldeak izaten dira eta ez dute edukitzen transmisio-kanal *ofizial* edo nagusietarako sarbiderik.

Diskurtso gailen horiek gizarte-errealitatearen —eta, beraz, historiaren beraren— ulermenari nola eragiten dioten ikusteko, Van Dijken (2005) teoria soziokognitiboa hartu behar dugu aintzat, kanpoko diskurtsoek gertaera historiko edo egoera zehatzei buruzko *buru-ereduen* eraikuntzan nolako eragina duten azaltzen baitu. Gainera, *barne-talde* eta *kanpo-talde* kontzeptuak aurkezten ditu. Horien bidez, hizlariak egoera batean sartuta dauden aktoreak kategorizatzen dituzte eta

batekin zein bestearekin identifikatzen diren adierazten dute; hala, nork bere burua modu positiboan aurkezteko eta bestearen irudikapen negatiboa egiteko joera izaten du. Mekanismo psikolinguistiko horrek neurri batean azaltzen du nola gauzatzen den memoria kolektiboaren (berr)eraikuntza. Ildo horretan, erreferentzia garrantzitsua daukagu: Wodakek (2001) garaturiko planteamendu diskurtsibo-historikoa. Egile horrek, Austriako gerra ondoko belaunaldiak sortutako ahozko diskurtsoen hizkuntza-analisi baten bidez, iraganari buruzko narratiba oro hizlariaren oraingo egoerak baldintzatzen duela egiaztatu zuen. Gainera, iragana kontatzean berreraikitze abian jartzen diren mekanismo psikolinguistikoetako batzuk argitu zituen, alegia, eraikitze-estrategiak, justifikatze-estrategiak, eraldatze-estrategiak eta suntsitze-estrategiak.

Gatazka ondoko egoeren testuinguruan, isiltasuna, sarritan, esandako diskurtsoa baino adierazgarriagoa izaten da. Gure iritziz, horixe gertatu da Euskal Herrian, ETaren atentatuak amaitu eta ia hamarkada bat geroago ez baita egon ez bake-prozesurik ez adiskidetzerik gizarte-mailan. Euskal Herriko kasuan dagoen transmisio-faltari buruzko kezka piztu zuen ikerketa honekiko interesa; izan ere, memoria kolektiboaren eraikuntza familien eta eremu pribatuaren esku uzten da maiz, konplexu eta beldur jakin batzuk uxatu gabe. Galtungek (2013) eta Lederachek (1998) argudiatu zuten moduan, bakearen eraikuntzak —gatazka bat indarkeriarik gabeko adierazpen bihurtzeak— maila guztiak hartu behar ditu barne, bistakoenetatik hasi eta ezkutuko indarkeria kulturaleraino, kontuan hartuta azken hori lehenengoa zilegitzen duten diskurtsoez eta buru-ereduez ere osatuta dagoela. Horretarako, funtsezkoa da eragindako alderdiak elkartzeko eta elkar ezagutzeko guneak sortzea. Gainera, belaunaldi berriei iragana baketze-planteamendu batetik berreraikitze tresnak eskaini behar zaizkie. Soilik horrela saihestu dezakegu memoriaren eraikuntzan bazterketa-arriskua, hau da, nork bere burua gatazkaren biktima gisa ez ezagutzea, baita iraganeko indarkeria idealizatzeko edo beste agertoki batzuetara itzuli nahi izateko arriskua ere; hain zuzen, horixe gertatu da Ipar Irlandan (Devine eta Schubotz, 2010) eta Kolonbian (Wilches Tinajá eta Hernández Pérez, 2016), eta gazte euskaldun batzuegan ere joera berbera ikusten da.

Euskal Herriko kasuaren ezaugarri bereizgarriena honako hau izango da, ziurrenik: Ipar Irlandako bake-prozesuak estatuko eta nazioarteko erakunde gorenen onspena izan zuen eta Kolonbian herritarrek foroak antolatzeke eta akordioak baieztatzeke prozesu batean parte hartu zuten; Euskal Herrian, aldiz, bake-prozesua ez dago Espainiako gobernuak aitortuta. Berezitasun hori dela eta, Whitfieldek (2014) eta beste egile batzuek *bakegintza birtuala* deitu diote euskal prozesuari. Gaur egun, terrorismoari lotutako ia 300 pertsona daude espetxeratuta eta argitu gabeko 220 atentatu daude oraindik (Fonseca, 2014). Euskal gatazkaren historiari ia ez zaio heltzen derrigorrezko hezkuntzan; beraz, belaunaldi berriek eskuragarri dituzten jakintzak eta tresnak familien barruan edo komunikabideen bitartez egindako transmisioaren menpe daude, eta gehienek ez dituzte gainditu liskarreko buru-moldeak. Ondorioz, *terrorismoaren aurkako diskurtso mediatikoa* delakoa garatu dute eta Espainiako gobernutik hurbil kokatu dira (Idoiaga eta Ramírez

de la Piscina, 2002; eta Murua Uria, 2015). Gaiaren inguruan egin diren azterlan urrietako batzuek erakutsi dutenez, gazte euskaldunek indarkeriazko iraganari buruzko informazioa falta dela uste dute eta gai tabua iruditzen zaie (Uson Gonzalez *et al.*, 2017).

### 3. Metodologia

Gure azterlanerako, banakako sei elkarrizketa sakon egin eta foku-talde bat antolatu genuen 2000 eta 2002 bitartean jaiotako sei neraberekin; guztiak Oñatin bizi ziren eta herriko bi eskola desberdinetara joaten ziren. Parte-hartzaileen % 50 neskak ziren, eta % 50 mutilak, eta denek borondatez hartu zuten parte proiektuan. Elkarrizketak 2018ko maiatzean eta ekainean egin ziren Lege Soziologiako Nazioarteko Institutuan, eta bakoitzak 30 minutu eta ordubete bitarteko iraupena izan zuen. Foku-taldeak ordubete eta erdi iraun zuen. Guztira, sei bat orduko ahozko datuak bildu genituen aztertzeko. Kontuan hartu behar da proiektuaren helburua ez dela Oñatiko gazteen iritzien analisi kuantitatiboa egitea, haien diskurtsoetatik abiatuta garatzen diren narratiba nagusiak aurkitzea baizik, baita horiek eraikitzeke baliatzen diren hizkuntza-estrategia nagusiak ezagutzea ere.

Horrenbestez, banakako elkarrizketak bi atal nagusitan banatu ziren. Lehen atalean, parte-hartzaileei galdera zabalak egin genizkien, erantzunak ez baldintzatzeko. Atal horrek honelako galderak hartu zituen barne: «Zer da burura etortzen zaizun lehenengo gauza *euskal gatazka* entzuten duzunean?», «Nola azalduko zenioke kanpotar bati zer den euskal gatazka?» edo «Zeintzuk izan dira gatazkako aktore nagusiak?». Galdera horiek, batez ere bigarrena, oso emankorrak izan ziren, gatazkaren historiari buruzko euren ikuspegia askatasunik handienaz azaltzeko aukera eman baitzuen parte-hartzaileei.

Elkarrizketaren bigarren atalean, gure azterlanaren xederako garrantzitsuak iruditzen zitzaizkigun galdera zehatzagoak egin genituen, hain zuzen ere, informazio-iturriei buruzko galderak: —adibidez, «Nola hitz egiten da gaiari buruz zure etxean eta eskolan?»—, identifikazio pertsonalari buruzkoak —«Euskal gatazkak zuegan eragina izan duela sentitzen duzu? Eta hala bada, nolakoa?»— eta ebaluazio moralari buruzkoak —«Justizia egin dela uste duzu?»—. Amaitzeko, parte-hartzaileek galde-sorta luze samar bati erantzun zioten, gatazkaren historia osoan garrantzitsutzat jotzen genituen aktore edo gertaera batzuen ingurukoari: besteak beste, eragindako alderdi armatu nagusiak (ETA, Espainiako gobernua eta polizia militarra) deskribatzeko eta talde bakoitzaren ordezkari nagusiak zerrendatzeko eskatu genien. Elkarrizketaren azken zatian, gatazkaren historian zehar egin diren zenbait bake-ekimenez galdetu genien.

Talde-elkarrizketan ariketa praktikoagoak egin ziren. Lehenik, parte-hartzaileei 1958tik 2018ra bitartekoa gertaeren kronologia osatzeko eskatu genien, garrantzitsuak iruditzen zitzaizkien

une eta aktore historikoak kokatzeko. Helburua ez zen hainbeste gertaeren ibilbideaz zenbat zekiten zehaztea, baizik eta honako hauek ikustea: batetik, zein aktore eta gertaera iruditzen zitzaizkien garrantzitsuenak eta, bestetik, nola eztabaidatzen zuten horiei buruz elkarren artean. Bigarren ariketarako, gatazkaren historia irudikatuko lukeen artelan hipotetiko bat (margolana edo eskultura) nahi bezala diseinatzeko eta deskribatzeko eskatu genien. Azken jardun hori emankorra izan zen, batez ere parte-hartzailerik gazteenentzat, ideia batzuk hitzez adierazteko zailtasun gehiago baitziztuzten. Gainera, gure ustez, horrelako sormen-ariketei esker, parte-hartzaileek ahoz azaltzen dituztenean bezainbeste arrazionalizatu gabe eraiki ditzakete narratibak; ondorioz, buru-ereduez jabetzeko modua zuzenagoa da.

Parte-hartzaileekin eta euren legezko tutoreekin aldez aurretik adostu bezala, elkarrizketa eta ariketa kolektibo guztiak grabatu eta, ondoren, transkribatu egin ziren. Elkarrizketak bertako euskalkian egin ziren, parte-hartzaileentzako formaturik naturalena zelako. Proiektu honen testuingurua Euskal Herri osoko nerabeak barne hartzen dituen ikerketa-lan zabalago bat da; beraz, transkripzioa euskararen erregistro arautuaren arabera egin zen.

Elkarrizketa guztiak transkribatutakoan, pasarte garrantzitsuak hautatu eta gure kategoriatan analitikoaren arabera sailkatu genituen. Zehatz-mehatz, lau kategoriatan nagusi zeuden, eta sakonago jorratuko ditugu artikuluko honen 5. atalean (*Aurkikuntza nagusiak*):

1. Gatazkako aktoreen kategorizazioa
2. Informazio-iturriak
3. Identifikazio pertsonala
4. Iragana berreraikitze erabilitako narratiba eta estrategia diskurtsibo nagusiak

Parte-hartzaileekin adostu bezala, haien izenak anonimoak izango dira lan honetan. Informazio-xedeetarako, pasarte bakoitzean kontatzailearen sexua eta adina aipatzen dira (adibidez, *N-16* erabiltzen da 16 urteko neska kontatzaile batentzat).

#### 4. Euskal gatazka Oñatin: ikerketaren testuinguru soziopolitiko

Gure ikerketa-lanak Euskal Herriko eremu osoa aztertzen duen arren, artikulu honek Oñatiko errealitatean jartzen du arreta berezia (11.348 biztanle 2016an). Oñati, geroago azalduko den moduan, ez da Gipuzkoako lurralde historikoaren barruan antzeko ezaugarri soziopolitikoak dituzten beste herri batzuen oso desberdina, baina baditu berezitasun batzuk: udalbatza alderdi abertzaleek soilik osatzen dute, hau da, ezker abertzaleak —17 ordezkari 10 ditu eta, beraz, alderdi gobernatzailea da— eta EAJ-PNV alderdi kristau-demokrata eta ekonomikoki liberalak. Bi alderdiek nolabaiteko autogobernuaren aldeko kanpaina egiten dute, eta Madrilen finkatutako alderdi politiko nagusiek (adibidez, PPK eta PSOEak) ez daukate inolako ordezkari politikorik udalean<sup>1</sup>.

Badirudi, beraz, testuinguru soziopolitiko horrek euskal nortasuna —bai nortasun kultural bai nortasun politiko gisa— indartsu samarra den giro baten alde egiten duela: erraz transmititzen zaie belaunaldi gazteei, eta gatazkaren alderdi *euskaldunean* kokatuko lirateke. Hortaz, pentsatzekoa da erresistentzia-mugimendu gisa interpretatutako ekintzekiko eta taldeekiko —hala nola ETA, iraganean— tolerantzia Euskal Herriko beste leku batzuetan baino handiagoa izan daitekeela. Hori gizarte-ekitaldietan, hala nola jai edo manifestazioetan, islatu ohi da, baita espazio publikoan marraztutako graffitetan eta bestelako adierazpen grafikoetan ere. Dena den, merezi du gatazkak udalerrian izan dituen ondorioak aztertzea, gazteei lotutako narratiba nagusiei buruzko hipotesiak sortze aldera.

Eusko Jaurlaritzaren datu ofizialen arabera (Fonseca, 2014), zenbait talde armatuk 970 atentatu hilgarri gauzatu zituzten 1960 eta 2014 bitartean. Gehienak (849) ETArri eta haren azpitaldeei egozten zaizkie, 27 estatuaren babespeko GAL talde paramilitarrari eta 42 Espainiako beste talde armatu «kontrolatu gabe» batzuei, hala nola BVEri. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak 4.113 tortura-kasu dokumentatu dituzte: horietako % 43,4 guardia zibilak (Espainiako polizia militarrek) egin zituen, % 43,3 Espainiako polizia nazionalak eta % 8,1 Euskal Autonomia Erkidegoko poliziak (ertzaintzak). Dena den, memoria historikoa lantzen duten herri-taldeek baieztatzen dutenez, 10.000 pertsona torturatu dituzte Espainiako Gerra Zibilaren amaieraz geroztik, Francisco Francoren diktaduran eta Espainian monarkia parlamentarioa ezarri osteko gatazka-urteetan.

Euskal Memoria Fundazioaren arabera, Oñatiko 60 biztanle torturatu dituzte azken bost hamarkadetan. Udalerriko atxiloketa gehienak 1971 eta 1975 bitartean gertatu ziren, diktaduraren azken urteetan (70 baino gehiago Lizarralderen [2017] arabera). Bosturteko hori izan zen atxiloketa

---

<sup>1</sup> Aintzat hartu ez dugula *euskal nazionalista* terminoa nahita erabili, gaizki-ulerturik ez sortzeko. Gure ustez, termino peioratiboa da eta, erabiliz gero, alderdi *nazionalista espainolak* direlakoei kontrajarrita erabili beharko litzateke.

gehien egin ziren garaia, eta hurrengo 1991-1995 bitartekoa, 20 lagunetik gora atxilotu baitzituzten. Oñatiko historia politikoaren berezitasun nagusietako bat da 1990eko hamarkadaren amaieraz geroztik ez dela egon garrantzi handiko atxiloketa-aldirik, eta horrek esan nahi du gaur egun 30 urtetik beherako biztanle gehienek ez dutela zuzenean gogoratzen herrikideren bat atxilotu izana. Beste udalerrri batzuetan ez bezala, ez dago edo ez da dokumentatu legez kanpokotzat jotako gazte-mugimenduei edo kale-borroka<sup>2</sup> deritzonari lotutako atxiloketarik.

———~~Lizarralderen~~ (2017) arabera, Oñatiko 67 biztanle egon dira espetxean gatazka armatu eta politikoarekin zerikusia duten arrazoiengatik. 2018an, horietako hiru espetxean daude oraindik, eta 20 urtetik gorako zigorrak dituzte hirurek. Horrek esan nahi du gure ikerketako parte-hartzaileak pertsona horiek espetxeratu baino lehen jaio zirela, hau da, ez dituztela inoiz zuzenean ezagutu.

Bestalde, aipatzekoa da Oñatik iheslari politikoen historia baduela. Euskal Memoria Fundazioaren arabera, azken bost hamarkadetako uneren batean gutxienez 36 biztanlek egin dute ihes gatazka politiko eta armatuarekin zerikusia duten arrazoiengatik, gehienbat Ipar Euskal Herrira, Venezuelara, Belgikara, Kanadara eta Uruguaira.

Gatazkaren bi alderdietan dokumentaturiko heriotzei dagokienez, jakinekoa da gutxienez Oñatiko bost biztanle hil zituztela gatazka armatuarekin zerikusia duten arrazoiak direla eta. Hauek izan ziren kasurik entzutetsuenak: Angel Fernandez militantea, 26 urtekoa, Gasteizko enpresa batean jartzen ari zen bonba batek hil zuena, eta Susana Arregi, 25 urteko etakidea, Irunberrin (Nafarroan) 1990eko gertaeretan hil zutena. Azken horri buruzko bertsio ofizialak esan zuen bere buruaz beste egin zuela ETAko beste militante batekin; ezagunek eta jarraitzaile politikoei, ostera, Guardia Zibilak erail zituela diote. Gainera, gutxienez Oñatiko beste hiru biztanle istripuetan hil ziren espetxean zeuden senideak edo lagunak bisitatzeko joan-etorrietan. Horrelako istripuetan hildakoei *dispertsio-politikaren biktimak* esaten zaie; politika horri jarraikiz, Espainiako gobernuak euskal presoak Euskal Herritik kanpoko —eta sarritan urrutiko—espetxeetara eramaten ditu duela urte askotatik, euren familiengandik hurbil egoteko eskubidea urratuz.

———~~Gatazkaren beste~~ aldean, argi samar dago ETAREN jardueraren biktima nagusiak Oñatira bidalitako guardia zibilak izan direla. Haien presentzia eta kuartela (hiriko alde historikotik hurbil, baina bai fisikoki bai sozialki bertako herritar gehienengandik bakanduta) azken hamarkadetako gatazka nagusietako batzuen sorburuak izan dira, haien jarrera larderiatsutzat jo delako maiz. ETAREN indarkeriazko jarduera gehienek ere guardia zibilak zituzten helburu: 1975 eta 1987 bitartean, gutxienez Espainiako polizia militarreko zortzi kide hil zituzten bonbak ezarriz edo tirokatuz. Horrez gain, Oñatiko herritarren memoria kolektiboan iraun duen gertaera nagusietako bat 1998an guardia zibilaren kuartelera granadak jaurtiz egindako atentatua da; Lizarraldek gogoratzen duenez, «ez zen inor hil, granadak eraikin barruraino heltzea lortu zuten». Izan ere,

---

<sup>2</sup> *Kale borroka* azpiegituren sabotajeen eta mitin eta protestetako liskarren bidez azaleratu ohi zen funtsean.



Oñati ingurune probokatzailerik samartzat jotzen da, urtero Fan Hemendik Eguna ospatzen duelako; herri-jai hori polizia militarren presentziaren aurkako protesta da, eta bertan istiluak egon dira noiz edo noiz.

Hona hemen galderarik garrantzitsuena, gure ustez: Gertaera horietatik zeintzuek iraun dute Oñatiko jendearen memoria kolektiboan eta nola transmititzen ari zaizkie belaunaldi gazteei? Badaukate behar adina *tresna* edo *memoria-teknologia* gatazkari buruzko euren narratibak berreraiki ahal izateko? Bitxia badirudi ere, jabetu gara Oñatiko memoriaren aldeko taldeek lan gogorra egin dutela gai horri dagokionez. Herriko bi plazari militante hilen izena jarri zaie ofizialki: plaza nagusian «Anjelen arkupea» dioen graffiti txiki bat dago, eta bigarren hezkuntzako eskola publikoko fatxadan «Irunberri plaza» jartzen duen plaka bat; hortaz, plazari ofiziala ez den izen berria ematen dio, 1990eko gertaerak direla eta. Hain zuzen, azken urteetan, Susana Arregiren heriotzaren oroitzapen-bilkuretan arazoak izan dira poliziarekin. Lizarralderen arabera, «errepresio horren beldurra izan daiteke memoria ez transmititzea eragin duen oinarrizko arrazoi bat».

Gure parte-hartzaileetako batzuk *Irunberri plaza* plakaren eraikin berean dagoen eskolara joaten dira, eta *memoria-teknologiaz* baliatzeko aukera badutela kontuan hartuta, horrek ustez eragina izan beharko luke gatazkari buruzko euren narratibetan, tokiko gertaerak besteen aldean nabarmenduz. Baina ez da halakorik gertatzen, hurrengo atalean azalduko dugun moduan.

## 5. Aurkikuntza nagusiak

Gure analisiak lau ardatz nagusi zituen: nola kategorizatzen eta ebaluatzen zituzten gazteek gatazkako aktore nagusiak; zeintzuk ziren gatazkaren memoria transmititzeko erabiltzen ari ziren iturri nagusiak; eta zer iruditzen zitzaizkien beraiei haien ondorioak. Azkenik, nerabeen diskurtsoetako narratiba nagusietako batzuk identifikatu ahal izan genituen.

### I. AKTORE NAGUSIEN KATEGORIZAZIOA ETA EBALUAZIOA

Jada aipatu dugun moduan, elkarrizketaren lehen atalak galdera irekiak hartu zituen barne, eta lehenetako bat hau izan zen: «Nor egon da euskal gatazkan nahastuta?». Erantzunek bi *lauki ideologiko* desberdin erakusten dituzte (Van Dijkek adierazten duenez) edo, beste era batean esanda, parte-hartzaileek bi eskema diskurtsibo desberdin eraiki dituzte, bakoitzean bi aktore polarizatuz: batetik, *euskaldunak* kategoria eta *espainolak* kategoria elkarren aurka kokatzen dituen *makrolauki* bat identifikatu dugu argi eta garbi. Izan ere, *gu* izenordaina —*barne-taldearen* identifikatzaile nagusietako bat— euskaldunen kategoriaren sinonimo gisa erabiltzen da gehienbat. Hori, adibidez, pasarte hauetan ikusten da:

1) Adibidez hemen, Oñatiren moduko herri batean zu euskaldun sentitzen ez bazara, ya hor, espainol izateagatik zaude gaizki ikusia. Eta ni naiz lehenengoa guztiz euskalduna sentitzen dena, baina baten batek ez badauka sentimendu hori, zergatik ez errespetatu? Ez dakit, daudela iritzi batzuk eta Espainian berdina: espainol bati esaten badiozu euskalduna zarela, ba iguala, ya hor okerragoa zaren modura. (N-16)

2) G: Zuretzako zer simbolizatzen du Guardia Zibilak, zer eragiten dizu?

E: Sinbolizatzen duena da gure herrian egon beharko ginela gu, izan beharko zela gure herria, eta mometuz ez dela gure herria bakarrik, eta badaukagula hemen atzerritar batzuk gainera gogo txarrez etorri direnak eta ongi etorriak ez direnak inoiz izango. Eta demostratzen da urtero, egunero. (M-16)

Lehen pasarteak erakusten duen buru-ereduak *euskaldun* eta *espainol* kategorien arteko liskar-egoera adierazten du eta bi nortasun irudikatzen ditu: parte-hartzaileak ez ditu kategoria bakoitzaren ezaugarriak deskribatzen; norbait gauza bat ala bestea *da*, baina bi nortasunek elkar baztertzen dute. Bigarren pasarteak, aldiz, *espainol* kategoria —argi eta garbi *bestea* balitz bezala aurkezten baita lauiki polarizatzailer horretan— oso aktore zehatz batekin erlazionatzen du: guardia zibila *bestetasunaren* —edo, testuinguru zehatz honetan, *espainoltasunaren*— paradigma bihurtu da eta «asmo txarra» egotziz ezaugarri negatiboak esleitzen zaizkio. Kasu horretan, barne-taldea ez da berariaz aipatzen, baina lehen pertsona erabiliz —*gu*, *gure herria*...— ematen da aditzera. *Atzerritar* izenaren erabilerak —kanpo-taldea deskribatzeko baliatzen da— iradokitzen du barne-taldea tokiko edo euskal nortasunari dagokiola. Dena den, *gu* hori argi eta garbi azpimarratzen da beste pasarte batzuetan:

3) Ba adibidez nire aitaitak askotan kontatu dit egiten zutela adibidez... bueno, es que nik izenak ez dakizkit, baina adibidez frankistak-eta, eskolan euskaraz berba egiteagatik zeukatela eraztun bat, eta errekreoan entzuten bazuten baten bat eraztuna beste horri pasatu eta eskolako ordu akaberan eraztuna zeukanak zigorra zeukala. Eta berak esaten dit bera askotan zegoela zigortuta zeren berak familia erabat euskalduna zeukan. Eta gero baita adibidez [frankistek] bere prima bati rapatu ziotela ilea, eta baita olio arraro bat eman, diarrea sortzen zizula, eta kalera atera jendea ridikulizatzeko, bakarrik euskalduna izateagatik. Orduan, alde horretatik, euskalduna zenak edo euskaragatik borroka egiten zuenak euskaragatik, ba nik uste dut jaso duela jaso behar ez zuena. Baina baita beste aldetik hildako asko espainolak izan arren, nik uste dut horiek ere jaso dutela. Nik uste dut bi alderdiek. Baina ez dakit esaten ze bando edo ze talde. (F-16)

Pasarte horrek bidegabetzat jotzen den egoera bat deskribatzen du: *bestearen* kategoria (*espainolak*, frankistek sinbolizatuak) errepresio-ideiari, eraztunak eta gizarte-jazarpenak sinbolizatuari, dago lotuta. Deskribapenak berak *bestearen* aurkezpen negatiboa eskaintzen du eta, beraz, ez du identifikazioaren alde egiten. Barne-taldea, ostera, deskribaturiko gizarte-taldearekiko enpatia indartzen duten ezaugarriak loturik dago: *euskaldun* kategoria biktima-nortasuntzat jotzen da —«bakarrik euskalduna izateagatik» adierazpenak iradokitzen du emakumeak ez zuela arestian

aipatutako zapalkuntza merezi, ez zuelako beste ezer egin—. Kasu horretan, nortasun kolektibo bat pairamen bidegabe baten arrazoia da. Ideia horrek identifikazio-botere handia dauka; izan ere, nortasun nazionala eta kulturala pertsonen bizitzan ia berezkoak diren eta oso sakon errotuta dauden elementutzat jotzen dira, portaera edo jarduera zehatzak ez bezala, horrelakoak erraz alda baitaitezke. Buru-eredu horren arabera, espainolek euskaldunen aurkako errepresioa erabiltzen dute euskaldunak *direlako*, ez zerbait *egin* dutelako. Gainera, parte-hartzaileak bere narratiban baliatutako adibideak norberaren aurkezpen positiboa areagotzen du: barne-taldeari ahotsa ematen dion pertsonaia umea da, errugabetasunaren sinboloa.

1958 eta 2011 bitarteko gatazka armatuaren testuinguru zehatzean, gure parte-hartzaileek ETA *euskaldunak* kategorian sartu zuten baina, aldi berean, euskal gizartearen eta talde armatuaren arteko bereizketa argia egin zuten. Horri esker, bigarren lauki polarizatzailea aurkitu genuen, lehenengoaren barruan: *espainolak* kanpo-taldea eskematik ateratzen denean, ETA bera bihurtzen da maiz kanpo-talde. Horixe iradokitzen du hurrengo pasarteak:

4) zu izan zaitezke euskalduna baina lotsatu Euskal Herriaren aldetik egin diren gauza askorena, eta niri hori pasatzen zait: ni oso euskalduna naiz baina askotan lotsa sentitzen dut ETAk egin dituen ekintza batzuen-edo aurrean. (F-16)

Kasu horretan, bereizketa argia hautematen da *euskaldunak* kategoriaren barruan: lauki polarizatzaile bat areagotzen du, *ETA vs. euskal gizartea* esanez laburbil genezakeena. Kontraesana «baina» lokailuaren bidez adierazten da: esaldiaren azken zatia lehenengoaren ezeztapena da.

Parte-hartzaileen definizioak sarritan oso orokorrak eta abstraktuak zirenez, borrokaren aktore armatu nagusiak definitzeko eskatu genien: ETA eta Espainiako gobernua. Erantzunak taula batean laburbildu ditugu, kontatzaileek esandakoa hitzez hitz kopiatuz, ahalik eta zehatzen islatzeko:

ETA	Espainiako gobernua
<p>a) <b>Definizioak/deskribapenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•«Euskal Herri aske baten alde egin duen talde terrorista bat»</li> <li>•«Taldea terrorista»</li> <li>•«Euskaldunen edo euskal kulturaren alde egin zuen talde armatu bat»</li> </ul>	<p>a) <b>Definizioak/deskribapenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• «Errepresioak»</li> <li>•Bi aurpegiduna: diktadura eta demokrazia</li> <li>•[Helburua] «Espainia bat, una y unida»</li> <li>• [Helburua] «[Euskaldun] nazionalitatea ezabatzea»</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>• [Helburua] «Autonomia»</li> <li>• Banaketa: ETA(m) eta ETA(pm)</li> <li>• «Hotza, sekretua»</li> </ul> <p><b>b) Ekintza zehatzak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• «Biolentzia erabiltzea edo pertsona inportanteak hiltzea, edo batzuetan zibilak»</li> <li>• Carrero Blanco hiltzea [zenbait aldiz aipatuta]</li> <li>• Bahiketak, droga trafikatuak hiltzea</li> <li>• Hipercor [1987ko atentatua], bonbak jartzea</li> <li>• Yoyesen hilketak</li> <li>• Miguel Angel Blancoren hilketak</li> <li>• «Gauza onak eta txarrak»: «frankismoari aurre egitea» vs. «supermerkatu batean bonba jartzea» [Hipercor]</li> <li>• Politikariei mehatxuak eta hilketak</li> <li>• Ortega Lararen bahiketa</li> <li>• Oñatiko baserriarrei gutunak mehatxuka</li> <li>• Hilketak</li> <li>• «Txibatoak hiltzea»</li> <li>• Guardia Zibilak hiltzea</li> <li>• «Arantzazura bidean Guardia Zibilari bonba jartzea»</li> <li>• Kotxe bonbak.</li> <li>• «Urte asko zulo batean sekuestratuta» [Ortega Lararen aipamena]</li> <li>• Torturak</li> </ul> <p><b>c) Ordezkarikide nagusiak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Argala: «Militantzia biolentoaren, bai, zera, biolentoaren barruan intelektual bat»</li> <li>• Joseba Sarrionandia</li> <li>• Txiki: «Azkenekoak hil zituztenak»</li> <li>• «Susana [Arregi] ere bazegoen, ETAn tipa bat»</li> <li>• Josu Uribetxeberria</li> <li>• Hizlariaren adiskide baten aita: «Erregea hiltzen saiatu zen»</li> <li>• Arnaldo Otegi: «Zuzenean intelektual bat»</li> </ul>	<p><b>b) Ekintza zehatzak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Errepresioa</li> <li>• Askatasuna mugatzea</li> <li>• Bide biolentoa</li> <li>• «Gazteen askatasuna eta ideologia mugatzea» [hezkuntzaren aipamena]</li> <li>• «Ekintza politiko eta abertzaleen ilegalizazioa»</li> <li>• Dispersioa, «familiak izorratzeko-edo»</li> <li>• Gasteizko istiluak 1978an</li> <li>• Presoen senideekiko indiferentzia</li> <li>• Torturak</li> <li>• «Euskaldunen askatasunak gutxitzea»</li> <li>• Jendea atxilotzea</li> <li>• Hezkuntza debekatzea [Francoren erregimenaren aipamena]</li> <li>• Altsasuko kasua</li> </ul> <p><b>c) Ordezkarikide nagusiak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Francisco Franco</li> <li>• Juan Karlos I.a, Espainiako errege ohia</li> <li>• Canovas del Castillo</li> <li>• Felipe Gonzalez: «Felipe Gonzalezek babestu zuen GALen mugimendua goitik behera»</li> <li>• GAL</li> </ul>
---	--

Kategorizazio horretan oinarrituta, zenbait fenomeno ikusten dira:

a) Bi aktoreak modu negatibo samarrean deskribatzen dira. ETAn dagokionez, bi erantzunek elementu positibo bat hartzen dute barne: euskaldunen eta euskal kulturaren alde jardutea. Hala ere, deskribapen demonizatzaileak dira nagusi, adibidez, *talde terrorista* adierazpena. Hortaz, ondorioztatzen dugu balitekeela ETAn helburuak onartzea, baina ez lortzeko modua (indarkeria). Hain zuzen, beste diskurtso batzuetan narratiba berbera aurkitu genuen, hala nola:

5) «A ver, inori ez zaio gustatzen imajinatzea aitaita arbola bati lotuta, edo nire aitaita-osaba izango zen... zera, ba kamioilaria zen, ba hila. Orduan, parte horretatik bai daukat zera hori, ez dakit, ETaren biolentziagaz puntu horretatik ba bai igual apur bat muzin egiteko horri edo, **baina beste alde batetik** bai ikusten dudala, igual bai da modu bat, o sea, nik hau esateko arrazoi bat igual bada ba nire familiakoak direla, zeren beste familia bat balitz eta izango bazen bat, ba hori, suposatzen zen drogarekin zerikusia zeukan pertsona, ba igual ez nuke esango iguala. Orduan ezin dut... o sea, objektiboki jarrita, igual kritikatu nuke nire familiako bat hiltzea edo beste bat hiltzea, baina ETaren jarduna ikusita zelakoa izan zen eta asmoak zeintzuk ziren, ezin dut kritikatu guztiz bere borroka». (M-16)

Pasarte horretan, kontatzaileak arrazionalizatzeko-estrategia bat erabiltzen du gatazka armatuari buruzko bere narratiba berreraikitzeke: ETak bere familiari egindako atentatuek sortu dituzten sentimenduak ulertzeko arrazoi bat bilatzen du, egoera arrazionalizatu egiten du egoera hipotetiko bat sartuz —horren bidez, gertakarien benetako errealitatek urruntzen da— eta ETaren helburuek sortzen dituzten sentimenduen bidez zurrizten du, helburu horiekin ados baitago. Kontraesan hori argi eta garbi adierazten da «baina» lokailuaz, ETaren moduen —indarkeria edo hilketak, kasu honetan— eta xedeen —aipatutako «asmoak»— arteko kontrastea islatzen baitu. Pasartearen azken zatia aurrekoaren ezeztapena da. Beraz, 5. pasartea *xedeen bidez justifikatzeko narratiba* deritzogunaren adibide ona da: ETaren ekintzak ulertzen eta onartzen dira barne-taldea bat datorren interes batek gidatzen dituen heinean; diskurtso horietan ez da talde armatua demonizatzen, baina indarkeriaren erabilerarekiko jarrera kritikoa agertzen da.

b) Halaber, aipagarria da gatazkaz —batez ere ETaz— galdetzean parte-hartzaileei bururatzen zaizkien lehen ideiak ekintzarik bortitzenak eta *ikusgarrienak* direla, biktima ugari utzi zituztelako edo biktimetako batzuk oso ezagunak zirelako. Horrez gain, sarritan komunikabideetan oihartzun handia izandako gertaerak dira eta eskuarki ETaren jardueraren alderik bortitzena islatzen dute. Beste kanpaina zehatz batzuk, adibidez, energia nuklearraren aurkakoa, edo biktimarik utzi ez duten edo biktima gutxiago utzi dituzten ekintzak ez dira oro har diskurtso horietan agertzen. Horretarako zenbait arrazoi egon litezke, besteak beste, galderaren planteamendua bera, parte-hartzaileei *gatazkaz* galdetu genielako eta badirudielako kontzeptu hori eskuarki indarkeriazko liskar-egoera batekin lotzen dutela. Dena den, elkarrizketen beste atal batzuetan igarri eta baieztatu dugun moduan, jarduera armatuz haraindi doazen elementuei buruzko ezagutzarik eza erantzun askotan geratu da agerian.

Ikerketa honetan parte hartu zuten nerabeen aburuz, ETA bere atentatuek deskribatzen dute, bere idealek, aldarrikapenek edo esloganek baino areago, bestela esanda, erakundearen alderdi armatuak iraun du haien imajinarioan, alderdi politikoa baino gehiago. Irudi hori bat dator ETAr buruzko diskurtso mediatiko nagusiekin (ikus *antiterrorismo mediatikoa* hemen: Idoiaga eta Ramirez de la Piscina, 2002; edo Velte, 2016) eta urruntze-prozesu bat erakusten du: nahiz eta parte-hartzaile gehienek *abertzaletzat* hartu euren burua, ez dute uste ETA erreferentzia politikoa denik.

c) Halaber, esanguratsua da elkarrizketatuek ETAREN ekintzak Espainiako gobernuarenak baino xehetasun gehiagorekin gogoratzea: lekuen edo pertsonen izenak eta ekintzen deskribapenak oparagoak dira haien narratibetan, baina, Espainiako gobernuari egotzitako ekintzei dagokienez, kategorizazioak abstraktuagoak eta orokorragoak dira («torturak», «errepresioa», «askatasuna mugatzea») eta kontatzaileek ez dute horietarako izen zehatzik, egilerik edo denbora- eta espazio-erreferentziarik ematen; sarritan, adibideak eskatutakoan, ez dakite zer erantzun.

d) Genero-ikuspegitik, deigarria da gazteek gogoratzen dituzten aktore zehatzak gizonak izatea: gehienak gatazkaren alderdi militarri lotuta daude edo elite politikoak ordezkaten dituzte. Horien ostean, tokiko erreferentziak dira aipatuenak: euren adinekoen artean hedatutako kasuak edo Oñatin eta inguruetan jazotako gertaerak. Lehen definizio-itzulian, bi emakume soilik aipatu zituzten: bata ETAREN biktima gisa (Yoyes) eta bestea militante gisa (Arregi, tokiko erreferentzia bat).

e) Parte-hartzaileen oroimenean iraun duten erreferentzia gehienak —edo lehen burutapen gisa agertu direnak eta, beraz, buru-eredu gailenak direnak— oso gertaera edo pertsonaia mediatikoak dira; horietako asko kontatzaileak jaio baino askoz lehenago gertatu ziren. Horren adibide garbia Luis Carrero Blancoren hilketa da, ziurrenik ETAREN atentaturik ezagunena, ia elkarrizketa guztietan agertu baita. Hein txikiagoan, baina hala ere modu aipagarrian, Hiperkorreko atentatua (1987) eta Miguel Angel Blancoren hilketa (1997) agertu dira —ETAr buruzko iritzi publikoaren inflexio-puntutzat jotzen dira biak, biktimak zibilak edo profil baxuko politikariak izan zirelako—, baita Joseba Sarrionandia ere, nahiz eta benetan idazle gisa militante ohi gisa baino ezagunagoa den. Kasu mediatiko horien ondoren, tokiko erreferentziak aipatzen dira sarrien: Susana Arregiren izena behin agertu zen elkarrizketetan —kontatzailea xehetasun gehiago emateko gai ez izan arren—, baita Josu Uribebeberriarena ere. Azken horren kasua oso ezaguna izan zen 2012an, espetxean minbizia

pairatzen ari zelako. Gure elkarrizketatuek emandako deskribapenek iradokitzen dute Uribetxeberriaren kasua eskualdekoa izateagatik eta azken urteetan jasandako gaixotasunagatik ezagutzen dutela haren espetxealdiaren xehetasunengatik baino gehiago: oso gutxi aipatu zuten Ortega Lararen bahiketan zerikusia izan zuela. Gure iritziz, hori memoriaren eraikuntzaren ondorio naturala da: komunitate epistemologikoez eskuarki tokiko erreferentziak eta duela gutxi gertaerak gogoratzen dituzte xehetasun gehiagorekin.

f) Narratiba kronologikoei dagokienez, bi fenomeno interesgarri ikusi ditugu. Aldi batetik, kontatzaileek bi fase bereizten dituzte argi eta garbi: lehenik, monarkia parlamentarioa ezarri arteko aldia, hots, 1970eko hamarkadaren amaierara artekoa, eta bigarrenik, 1978aren osteko aldia. ETAREN ekintzak aldiaren arabera ebaluatzen dituzte:

6) Ba hasiera batean alderdi faxistak egiten zutena zen ba hori, eurena inposatu, kosta ahala kosta hori egin eta normalean indarkeriaz izaten zen. Indarkeriaz eta beldurrez. Eta gero ETAK egiten zuena hasiera batean horri aurre egin, baina gero ja ailegatu zen momentu bat ez zena jakin noiz jare edo zelan akabo, eta beharrezkoak ez ziren gauzak egiten zituela bakarrik hor segitzeagatik, presentzia izateagatik.

G: Zein momentu izan zen hori?

E: Ba adibidez ja trantsizio garai bat egon zenean, finkatu zenean demokrazia bat, nahiz eta orain zalantzan jartzen den gauzak asko aldatu direna, baina hortik aurrera, momentu batetik aurrera jada ez zegoen borroka armatuarekin jarraitzeko beharrik. Bake momentua zen». (M-16)

Pasarte horretan, argi samar dago kontatzaileak muga bat ezartzen duela 1978ko trantsizioan: aurreko ekintzak Bestearen aurkezpen negatiboaren bidez zurrizten dira —Espainiako gobernuari «indarkeria» eta «beldurra» egozten zaizkie Francoren garaian eta «alderdi faxista» gisa deskribatzen da—, eta une horren ostean gertatu ziren ekintzak beharrezkoak ez direla uste dute —horrek iradokitzen du aurrekoak *bazirela* beharrezkoak—. Pasarte hori bat dator oso maiz antzemandako beste narratiba batekin: *erresistentzia-narratiba* edo *beharraren bidez justifikatzen duen narratiba* delakoarekin. Buru-eredu horren arabera, Espainiako gobernuak diktaduran zehar Euskal Herrian ezarritako zapalkuntza armatu eta politikoaren kontrako erantzun saihestezinak izan ziren ETAREN atentatu armatuak. Beraz, testuinguru politikoak gatazka armatua naturalizatzen eta justifikatzen du, baina justifikazio horrek euskarria galtzen du testuinguru politikoa aldatzean: Francoren agintaldiaren amaieran jada ez du babes bera jasotzen. «Hasiera batean» eta «baina gero» lokailuek argi eta garbi erakusten dute hori. Eta aditz inpersonal baten erabilerak areagotu egiten du: «ez zena jakin». Subjektua (ETA) ezabatuz, hizlariak ekintzaren atzean dagoen egiletza indargabetzen du; hau

da, ekintza horiek gertakari naturalizatu eta saihestezin bihurtzen dira diskurtsoan, aktore jakin baten erabakiak izan beharrean.

Hala ere, badirudi elkarrizketatutako parte-hartzaileentzat zailagoa dela Espainiako gobernuaren ekintzak ebaluatzea. 1978aren aurretik eta ostean izandako gertaerak eta aktoreak nahasi ohi dituzte, baina ziurtasun handia dute Francoren diktaduran oso goiz jazo ziren gertaeretan. Aipatzen diren maiztasunaren bidez ez ezik diskurtso-markatzaileen bidez ere ikusten da hori, hizlariak kontatzen ari den gertaeren inguruan duen jarrera erakusten baitute: nerabeek askoz ere zalantza-adierazpen gutxiago erabiltzen dituzte 1978aren aurretik jazo ziren gertaerez mintzatzean duela gutxiago gertatu zirenez hitz egitean baino. Gertaera berriagoen deskribapenetan dudazko esamoldeak erabili dira, hala nola «supongo», «bueno», «ez nago seguru», «igual» edo «uste dut». 1978aren aurreko gertaerei buruzko azalpenak, oro har, eraikuntza zuzenagoak dira eta tonu biribilagoan ematen dira. Zalantza adierazten duten adierazpenek norbera kontatutako gertaeretatik urruntzen ari dela islatzen dute. *Negoiazio-espazio* bat sortzen dute diskurtsoan: kontatzailea baieztatzen ari den horretatik urruntzen da eta nolabaiteko leku diskurtsiboa onartzen du esaten ari dena egia den ala ez negoziatzeko. Buru-eredu horiek aldaketetarako irekiago daude eta, horrenbestez, erraz eragin ahal zaie. Horren adibidea da GAL erakunde paramilitarrak elkarrizketetan izan duen gailentasuna.

7) GAL da estatuko poliziek-edo, nik entzun dut PSOEren gobernupean sortu zen talde paramilitar bat antiterrorista zela, ba horretara dedikatzen zena, terroristak ehizatzen.

G: Non jarduten zuen, zenbat biktima, zeintzuk?

E: Ba adibidez Kattu izan zan lehenengo biktima 84an. Beste batzuk ere egon dira, bueno, ez nago seguru adibidez Pasaiaiko Sarraskia GALeko kideek edo guardia zibilek egin zuten. Gero daude bete batzuk nahastu ahal direnak GALarekin, esan dudana modura guardia zibilak edo GALak: Lasa eta Zabala, horrelako kasuak. (M-16)

8) G: Zeuk aipatu duzu GAL. Zer zen?

E: ETaren kontra egiteko gobernuak sortu zuen talde bat, beste talde armatu bat.

G: Non ibiltzen zen, zer egiten zuen?

E: Ba ETaren kontra ez dakit non, nola. Hau da, nola, este, armekin, atentatuak egiten eta horrela supongo, baina ez dakit.

G: Non ikasi duzu GALi buruz?

E: Ba GAL beti entzun dut, «zer da GAL, zer da GAL», eta ETaren kontra egin zuen beste talde bat. (M-15)



Bi pasarteak zeharo argigarriak dira: alde batetik, GAL irudi gailena da gazte horien buru-ereduetan, talde armatua delako eta, beraz, gatazkaren indarkeriazko adierazpenean parte hartzen duelako. «Terroristak ehizatu» metaforak eta «talde paramilitar» eta «talde armatu» deskribapenek iradokitzen dute hori. Gainera, argi eta garbi ikusten da ziurtasuna —eta, hortaz, inplikazio handiagoa eta kontatutako gertaeretatik urruntasun txikiagoa— erakusten duten adierazpenen eta zalantzak erakusten dituzten adierazpenen arteko desberdintasuna. «Kattu izan zan lehenengo biktima» edo «Gobernuak ETaren kontra jotzeko sortutako taldea » esapideetan ez dago zalantza izpirik, eta, horrenbestez, kontatzailearentzat egia biribila da. Beraz, buru-eredu hori beste batzuk baino sendoagoa da. Hizkuntza-ikuspegitik, narratiban *egia-kontratu* bat ezartzeko helburua duten eraikitze-estrategiak dira: negoziatorako gunerik edo ñabardurarik eskaintzen ez duten egiturak erabiliz, kontatzailea baieztatzen duen horretatik oso hurbil kokatzen da. Urruntasuna gaia zehatz-mehatz aztertzen hasten garenean sortzen da: kontatzaileek ziurgabetasun handiagoa erakusten dute GALen ekintzak deskribatzean. Gure ustez, ezaugarri honekin du zerikusia: elkarrizketak egin baino pixka bat lehenago, euskal telebista publikoak GALi buruzko dokumental bat eman zuen; logikoa da, beraz, dokumentala ikusi zuten gazteek ziurtasun handiagorekin hitz egitea filmean erakutsi zituzten gertaerei buruz, dokumentalak fidatzeko moduko *egiazko bertsio* antzeko bat sortu zuelako. Ideia hori hurrengo atalean azalduko dugu zehatz-mehatz.

## II. TRANSMISIO-KANALAK

Hauxe izan zen gure analisirako garrantzitsua iruditzen zitzaigun bigarren galdera: Zein transmisio-iturri daude eskuragarri belaunaldi gazteentzat euren memoria historikoa eraiki dezaten eta zeintzuek dute eraginik handiena haien buru-ereduetan? Azken hori zehaztea zail samarra da, ikerketa kognitiboa eskatzen duelako, material diskurtsiboa bakarrik aztertzeaz gain. Dena den, bildu ditugun ahozko datuak aztarna gisa erabil daitezke eragin horietako batzuk identifikatzeko, hau da, gazte horientzako *egia ezartzeko iturri* nagusiak zein diren jakiteko.

### a) Etxea

Gure hipotesien arabera, duela gutxiko historia transmititzen ari den kanal nagusia familia izango da, jakina. Dena den, ikusi dugun moduan, hori neurri batean bakarrik da egia: senide zaharrek transmititutako ideiek eragin handia dute nerabeei garrantzitsuak iruditzen zaizkien

gaietan; hala ere, ez dute hezkuntza-diskurtsoek adinako legitimaziorik jasotzen. Familia barruko transmisioa istorio-kontaketa moduan egiten da maiz:

9) «Nire aitaren tio bat bai hil zuen ETAk, ba justo ETAk trafikanteak hiltzen zituen momentuan, ustezko trafikante bat-edo, ez da argi geratu zergatik zen. Eta gero nire aitaita ere bai egon zen egun batez, bera taxista zen eta ETAk bere kotxearen beharra zeukan-edo, eta bai egon zen bahituta egun batean arbola bati lotuta. Hori aitaren partetik. Baina nik uste dut aitaren jarrera kritikoagoa dela, ez horregatik, baizik eta berak daukan ideologia kristauagatik eta horrela, biolentziaren kontra eta hori. Ama ere kristaua da baina bai ikusten duela igual beharra dagoenean beharra dagoela eta ezin dela ebitatu, edo ez dela ebitatu behar igual.

(...)

Bueno, bai: kontatu zidan nola pasatu zen egun horretan pasatu zen dena, eta bai destakablea da igual ETAk nahiz eta momentu horretan uste dut inoren gustukoa ez dela izango arbola bati lotuta egotea kotxea kentzen dizuten bitartean, aparte kotxe hori zela euren etxera lau seme-alaba eta euren diru iturri bakarra... hori ez da izango gustukoa, baina berak esaten du zenaren barruan ETakoek ez zutela gaizki tratatu. Kotxea osorik agertu zen eta berari ez zioten minik egin». (M-16)

Bi pasarte horiek elkarrizketa beretik atera dira eta azpimarratzeko moduko zenbait ezaugarri dituzte. Alde batetik, transmisio-kanala istorio bat da, narratiba egituratu bat: memoria transmititzeko oso baliabide arrunta da. Kontatzaileak gatazka osoa azaltzen duen adibide gisa erabiltzen du istorioa, berarentzat garrantzitsuak diren elementuak —adibidez, droga-trafikarien aurkako ETaren kanpaina— nabarmenduz, familiaren barruan gertatu zelako —ez da kasualitatea elkarrizketatu hori izatea kanpaina aipatu zuen bakarra—. Bestalde, norberaren familia modu positiboan —adibidez, biktima gisa— aurkezteko joera dago, nahiz eta kasu horretan sentimenduak talka egin ETaren ekintzak moralaren aldetik onargarriak zirelako ideiarekin. Hizlaria, kontraesana ebazteko, arrazionalizatzeko-estrategia batez baliatzen da: ETaren ekintzak erlatibizatu egiten ditu ondorioak ebaluatuz —familian ez zen kalte fisikorik egon—.

Hala ere, parte-hartzaile askok euren familien barruan gaiari buruz hitz egiteko zailtasunak adierazi dituzte. Sarritan, beldur- eta lotsa-sentimenduen bidez adierazten da, parte-hartzaileek berek aitortzen dutelako ez direla eroso sentitzen gaiak mintzatzean:

10) «Nik dakit berak [preso batek, hizlariaren gurasoen ezagun batek] kartzelan ikasi egiten duela, dela pertsona kultu baten moduan. Ez dakit. Niri kortea ematen dit gurasoei

*galdetzea, eta ez dakit asko. Azkenean, tema fuertea moduan da, eta ni informatu nintzen berak zer egin zuen, baina asko ez dakit. (F-17)*

*11) G: Ezagutzen duzu presorik?*

*E: Nire aitaren lagun bat. ETAn ibili zen, kartzelatik irten zen eta egon zen — herrira iritsi zenean jendea bildu zen. Ni ez nintzen agertu, baina aitak esan zidan nola egon zen.*

*G: Zein da bere kasua, nolakoa da?*

*E: Ba neska bat zela dakit. (M-15)*

*12) Preso asko daude eta preso horien historia jakiteak ez dit ezer aportatzen, zeren ez da aldatu behar. Niri esaten badituzu preso batek pertsona bat hil duela edo bost hil dituela, ezin dizut esan ulertuko dudarik, ezin dizut esan ni oraintxe bertan kapaza izango nintzenik bost pertsona hiltzeko, baina ezin dizut esan kondenatu behar ditudarik hilketa horiek».*

*(M-17)*

Lehen bi pasarteetan, elkarrizketatuak gurasoen lagunei buruz ari dira hitz egiten: gatazkaren alderdi armatuarekin zerikusia dute edo izan dute. Biek nolabaiteko frustrazioa adierazten dute, pertsona horien inguruan asko ez dakitela uste dutelako, eta gaiarekiko antsietatea ere sentitzen dute. Horrek iradoki dezake gazteek oraindik sumatzen dutela gatazka armatua tabua dela gizartean, bereziki barne-taldeko kide gisa kategorizatutako pertsona zehatzei dagokienez. Pertzepzio horrek ukatzea ekar dezake, 12. pasartean ikusten den moduan; izan ere, bertan, kontatzaileak baieztatzen du ez duela presoez gehiago jakin nahi «zeren ez da aldatu behar».

## **b) Hezkuntza**

Ikerketa honetan aurkitu dugun fenomenorik harrigarrienetako batek eskolako transmisioarekin du zerikusia. Alde batetik, elkarrizketatutako nerabeek ez dute uste eskola transmisio-kanal nagusietako bat denik: gehienek esan zuten gatazkaren historiari buruz hezkuntza formalean ikasten zutena gutxiegi zela. Dena den, haien diskurtsoek ziurtasun handia erakusten dute eskolan ikasitako elementuez mintzatzen direnean; hau da, gelan jasotako informazioa zalantza edo urruntasuna islatzen duten esaldi gutxiagorekin ematen dute. Bestela esanda, itxuraz, nerabeentzat errazagoa da eskolako ikasgaiak *egia objektibo* gisa onartzea gurasoen istorioak onartzea baino, azken horiek askotan justifikatu egin baitzituzten. Bistakoa da, beraz, hezkuntza-erakundeek garrantzi handia dutela memoria transmititzeko prozesuan. Ohartu garenez eta lehenago jada aipatu dugunez, desberdintasun handia dago gazteek 1978 aurretik jazo ziren gertaerei buruz eta urte horren ostean gertatukoei buruz adierazitako ziurtasun-mailan. Horretarako oso arrazoi zehatza egon

daiteke: historia-liburu gehienetako gaiek Francoren erregimenaren amaiera arteko aldia aztertzen dute; 1978aren ondorengo gertaera historikoak salbuespen gisa jorratzen dira batez ere. Horrek eragin zuzena du belaunaldi gazteen narratibetan: ziurtasun handiarekin kontatzen dute 1978ra arte gertatu zena, askotan Espainiako Gerra Zibileko eta Francoren erregimeneko anekdotak nabarmenduz. Berez, duela gutxiko gertaerak zehatzago gogoratu beharko lituzkete —besteak beste, gurasoek bizi zuten aldia izan zelako—, baina ez da hori gertatzen. Bi arrazoi egon litezke: alde batetik, badirudi eskolan azpimarratutako gaiek biziago irauten dutela nerabeen oroimenean; bestetik, baliteke psikologikoki eta sozialki *seguruagoa* iruditzea denboran urrunago dauden gertaerak berenganatzea hurbilago daudenak berenganatzea baino, azken horiek eztabaidagarriagoak direlako eta ez direlako *egia objektibo* gisa hautematen.

### **c) Adin berekoak eta gizarte-giroa**

Elkarrizketetan agertu diren kasu pertsonal gehienak beste nerabe batzuek transmititu dizkiete kontatzaileei. Horrek erakusten digu gertaera hurbilek oroimenean irauteko aukera handiagoa dutela. Narratiba horiek, oro har, oso sinesgarriak direla aitortzen da —urruntasuna aditzera ematen duten oso adierazpen gutxirekin birtransmititzen dira—; horrenbestez, argudia dezakegu adin bereko lagunek eta ezagunek eragin handia daukatela gazteen sozializazio politikoan. Gizarte-giroak ziur asko ere izango du eragina, elkarrizketatuek aitortzen baitute gaiari buruzko *iritzi orokor* moduko bat dagoela. Dena den, inork ez du aipatu 4. kapituluaren identifikatutako tokiko *memoria-teknologietako* bat ere: edo ez dute elementu horien berri edo ez dituzte garrantzitsutzat jotzen. Gainera, parte-hartzaileek adierazi dute gatazkaren historiak toki gutxi duela edo tokirik ez duela euren eguneroko solasaldi gehienetan; beraz, adin berekoen eragina indartsua da, baina oso gutxitan gauzatzen da.

### **d) Komunikabideak**

Bitxia badirudi ere, parte-hartzaile batek ere ez ditu komunikabideak berariaz aipatu gatazkari buruzko ezagutza-iturri gisa; elkarrizketatzaileak egunkari eta gizarte-sare nagusiez eta kontsumitzen dituzten beste komunikabideez galdetu behar izan die. Salbuespen bakarra telebista-programa baten aipamena izan da. Horrenbestez, zaila da —edo ezinezkoa— baieztatzea zein neurritan eragiten dieten komunikabideek nerabe horien buru-ereduei, eragina badaukatela argi dagoen arren. Ezaugarri horren iturburua *hizkuntza-kolonizazioa* da, parte-hartzaileek prentsan zeharo hedatuta dauden baina gazteen narratibekin bat ez datozen adierazpenak eta metaforak erabiltzen baitituzte. Hona hemen adibide argi bat: «talde terrorista» —ETAz hitz egitean—, «verdugo» edo «cachorros de ETA». Beraz, onar

dezakegu komunikabideek nolabaiteko *gas-eragina* dutela, hartzaileak argi identifikatzen ez duena baina bere buru-ereduei eragiten diena. Gure kasuan, gazteek hurbileko ingurunean dituzten diskurtsoekin maiz talka egiten duen *gizarte-giro* batekoak dira. Horren froga da aurrez finkatutako buru-ereduak zalantzan jartzen dituzten diskurtso mediatikoak bakarrik identifikatzen dituztela.

13) G: *Konforme zaude komunikabideetatik iristen zaizunarekin?*

E: *Ez. Adibidez orain Altsasuko temakin inportantzia gutxi eman zaie; sare sozialetan zera gehiago eduki du komunikabideetan baino. Cuatrok adibidez ez dio batere zerarik eman.*

(F-17)

### III. IDENTIFIKAZIO PERTSONALA

Gure analisiaren hirugarren atalak nerabeek indarkeriazko iraganeko gertaerez hitz egitean erakusten duten identifikazio- edo konpromiso-maila hartu zuen barne, baita iraganeko gertaerak edo aktoreak gaur egungo arazoekin erlazionatzen dituzten ere. Gai horri buruzko diskurtsoak sortzeko asmoz, lehenengo eta behin galdera ireki bat egin genien: «Euskal gatazkak zuri eragin dizula sentitzen duzu?». Lehen erantzuna —kontzientea— ia kasu guztietan ezetz izan zen, ziurtasun handiago edo txikiagoarekin. Dena den, geroago, beste erantzun batzuetan parte-hartzaileek gatazkak eragin diela sentitzen duten zenbait modu iradoki dituzte. Eragin hori, nagusiki, aurkako aurreiritzi eta estereotipo gisa eta modu abstraktu edo kulturalagoan hautematen dute. Zehazki azaltzen saiatuko gara.

14) *Nik uste dut askotan euskaldun bat **definitzen dela ETA**, ez dakizu? Niri askotan pasa zait, igual udan joan Estatu Batuetara eta **Madrilgo batek** behin galdetu **zidan** ea eskolan erakusten **ziguten** armak egiten. Eta ni, “A ver, barkatu?”. Edo armak erabiltzen, ez dakit nola zen galdera. Eta orduan nik beti esan izan dut, ni oso euskalduna sentitzen naiz, baina ni ez naiz adibidez ETAREN aldekoa ez naiz inoiz izan. (F-16)*

15) G: *Euskal gatazkak zuri eragin dizula sentitzen duzu?*

E: *Bai, niri justo asko ez, baina nire gurasoei eta bai. Zeren eurak joaten dira bisita egitera [presoak bisitatzera], eta niri personalmente... esan duguna lehen, azkenean **eragina daukala kanpokoek zein aurreiritzi dauzkaten**, baina bestela ez. (F-17)*

Bi kasuetan, kontatzaileek berariaz adierazi dute aurreiritzien biktima sentitzen direla. Euskal Herritik kanpoko jendeak euskaldunei buruzko aurreiritziak dituela uste dute, hau da, belaunaldi gazteak pentsatzen du nolabaiteko kriminalizazioa jasaten dutela *euskaldun* eta *ETA* kategoriak kanpo-taldearen buruan maiz lotuta egoten direlako. Bitxia badirudi ere,

bigarren kontatzaileak gatazkaren ondorioz agerikoenetako bat bizi izan du zeharka: gurasoen lagun bat espetxean dago, eta gurasoak aldizka bisitatzerara joaten dira. Dena den, kontatzaileak hori ez du gatazkak berarengan izandako eragintzat jotzen.

Badirudi presoak, eskuarki, gatazkaren bigarren mailako ondorioa direla parte-hartzaileen buruan: ez dira oso sarri agertzen haien diskurtsoetan, elkarrizketatzaileak galdetu ezan. Zuzenean ezagutzen dituzten kasuetan izan ezik —jada ikusi dugunez, zailtasun gehigarri bati aurre egiten diote, gazteak ez direlako eroso sentitzen horietaz mintzatzean—, presoak kolektibo bateratu gisa islatzen dituzte. Kasu batzuetan, gatazkaren biktima moduan deskribatzen dituzte. Kontatzaileak horrelakoetan identifikatzen dira gehien presoekin:

16) Bai igual izaten zen txikitan Arranora sartu gurasoekin zer edo zer hartzera, eta aldamaneko barran ikusi ba bost preso ba horiek argazkiak eta ondoan beste preso baten silueta beltzez pintatuta esaten: “Hurrengoa zu izan zaitezke edo hemen aipatu ez diren asko hor daude”. Hori bai joan dan gutxitzen; azkenean orain bakarrik hiru geratzen dira, baina **bai da zer edo zer gertukoa, txikitatik bizi izan duzuna**, igual ez duzuna bizi modu zuzenean, baina bai beti hor egon direnak eta beti presentziatu izan duzunak, eta nahiz eta ez eduki zer edo zer eurekin erlazio pertsonalean edo, bai dena zer edo zer **pentsatzen duzuna hurrengoa zu izan zaitezkeela** eta hurrengoa kartzelan buka dezakeena 40 urteko kondena betetzen zu izan zaitezkeela. Eta Altsasuko gazteak horren erakusle edo. (M-16)

17) Nire ustez baita ere biktimak dira presoan familiak. Zeren azkenean **oraintxe dago dispertsioa** eta; askok sufritu dute horren konsekuentzia kulparik eduki barik. Adibidez, nire laguna, bere aita **Kordoban** dago. Biktima mota hori dago, gero dago biktima berak sortu duena, ba sekuestratu egin dutena-edo, edo beste bat ba familia. Familia atentatu bat eduki duena edo. Eta gero terroristak eurek ere, euren familiatik hainbeste urrunduta ere, biktimak ahal dira izan. **Gu ere** azkenean, **hori sufritzen dugu, gure kontrakoen...** bo, azkenean... ez dakit nola esplikatuz. Orain **dagoen Euskal Herriaren kontrako hori** moduan; **guk ere** alde batetik **sufritzen ditugu konsekuentzi horiek**. (N-17)

Bi pasarte horiek gure parte-hartzaileek gatazkaren adierazpen edo eragin batzuekiko erakusten duten identifikazio-mailaren adibide onak dira. Lehenik, pentsatzen dute presoan arazoa aurreko belaunaldiari eragin zion arazoa dela nagusiki; hala ere, pertsona bera baino gehiago, presoaren figura ezagutzen dute, mekanismo arau-emaile gisa funtzionatzen baitu, abisu edo gizarte-arau moduko bat balitz bezala. Beste aldetik, benetan interesgarriak diren eta gatazkari lotuta dauden kontu batzuk daude: hain zuzen ere, 2018. urtean, Altsasuko gertaerak —zortzi gazte espetxeratu zituzten zerbitzutik kanpo zeuden bi guardia zibilekin izandako taberna-borroka baten ondorioz— eta Oñatiko urteroko Fan Hemendik Eguneko

istiluak. Azkenik, bi pasarteek kontatutako gertaerekiko identifikazio-maila handia erakusten dute, esperientzia pertsonaletan edo lehen pertsonako aditzetan oinarritzen direlako.

Beste aurkikuntza garrantzitsu bat da elkarrizketatutako nerabeek, antza, gatazka modu *imaterialean* bizi dutela, ez modu *materialean* —errepresio fisikoa, presoen existentzia, salbuespenezko polizia militarren presentzia edo benetako kalte fisikoa edo nolabaiteko askatasun-gabetze fisikoa jasateko beldurra izan liteke, horiek baitira esparru politikoan gehien aipatzen diren gaiak—. Hori behin baino gehiagotan azaleratu da gure elkarrizketetan, bereziki gatazka amaitu dela uste ote duten galdetzean:

*18) Nik uste dut gatazka bat ez dela akabatzen nahiz eta orain borroka armaturik ez egon... bueno, bai, presente edo ez egon, uste dut gatazka bat ez dela amaitzen gorroto hori desagertu arte. Eta nik uste dut gorroto hori ez dela inoiz desagertuko. (F-16)*

*19) G: Gatazka bukatu dela esango zenuke?*

*E: Ez. Zeren gatazka armatua bera bai, baina oraindik lehen esan dudan modura, Altsasuko kasua hor ikusten da azkenean **baldintzatu egin digula** eta oraindik hor segitzen du gure kontrako sentimentu horrek, edo ETA hor segitzea gura izate horrek, bai gobernuaren aldetik, zeren azkenean ETA bai izan dela zer edo zer oso txarra, **inori ez zaiona komeni puntu batetik aurrera egotea**, baina askotan ona izan da gauzak justifikatzeko gobernuak. (M-16)*

Bi pasarte horietan, gatazka sentimenduen eta aurreiritzien erlazio gisa nabaritzen dute nagusiki: kaltea barne-taldeari buruzko aldez aurretik pentsatutako ideien bidez egiten da; talde hori 19. pasartean «gu» izenordainak ematen du aditzera. Diskurtso horrek, halaber, gure elkarrizketetan zenbait aldiz agertu den beste narratiba bat identifikatzea ahalbidetzen digu: Espainiako gobernuak ETAREN existentzia euskal gizartea —barne-taldea, «gure kontrako sentimendu horrek» eta «inori ez zaiona komeni» adierazpenen bidez— kriminalizatzeko bide gisa erabili duela uste dute.

Identifikazio pertsonalari dagokionez, oso interesgarria iruditu zitzaigun lehen pertsonako aditzen eta izenordainen erabilera iraganaz hitz egitean. Ez genuen aurkitu espero bezainbeste, baina kasu batzuetan kontatzaileek benetan bizi izan ez zituzten gertakariei buruz lehen pertsonan hitz egin zuten:

*20) Euskal gatazka izan zen euskaldunen askatasunagatik talde armatu batek, bo, talde armatu bat saiatu zena askatasuna, ba hori, ez? Eskatzen edo... eskatzen azkenean. Baina gobernuak ez ziola jarri [utzi] eta **orain gaudela armak jartzen-edo**, ea nola bukatzen den. (M-15)*

Deigarria da 15 urteko nerabe batek bere burua fisikoki inoiz kide izan ez den talde baten barruan kokatzea. 2002an jaio zenez, argi dago kontatzaileak ez duela inoiz armarik hartu, eta, hortaz, ezinezkoa da «armak jartzen» *egotea*. Beraz, gure aburuz, fenomeno hori nortasun kolektiboak diskurtsoaren bidez transmititzeko eta adierazteko moduaren adibide bat da: kontatzaileak sentitzen du iraganean ETaren jardura armatuaren alde egoteagatik bateratuta egon zen komunitate bateko kidea dela.

#### IV. BESTE OHAR BATZUK

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu elkarrizketetan adierazi ziren elementuak ez ezik isilpean geratu zirenak ere azpimarratzea. Ikertzaileari esanguratsua iruditu zitzaion elkarrizketatu batek ere bake-prozesua ez aipatzea gatazkaren historiaren inflexio-puntuez galdetu zienean, eta ia inork ez jakitea ezertxo ere bake-ekimen gehienei buruz horietaz zehatz-mehatz galdetu zienean —adibidez, Lizarra-Garaziko 1998ko prozesua, Donostiako 2011ko bake-konferentzia eta *bake-artisauek* burututako azken ekitaldiak—.

Bestalde, badirudi transmisio-hutsune bat dagoela Euskal Herriko alderdi politiko ilegalizatuen eta beste erakunde politiko edo zibil batzuen historiaren inguruan: nerabeetako batek ere ezin izan zuen azaldu zein alderdi debekatu zituzten 2000ko hamarkadako lehen urteetan eta nolako eragina izan zuen horrek bizitza politikoan; halaber, gatazka ez zuten lotu legez kanpo utzitako beste erakunde batzuekin.

#### 6. Eztabaida

Gure elkarrizketatuen diskurtsoetan agerian geratu zen urruntasunean oinarrituta, gatazka ondoko belaunaldi batekoak direla pentsa dezakegu: gatazka politiko eta armatuaren ondorio material ugariarekin bizi diren arren —presoen berri dute, zeharka ezagutzen dituzte, memoria-lekuetatik igarotzen dira—, ez zaie iruditzen alderdi horiek eurengan zuzeneko eraginik dutenik; aitzitik, belaunaldi zaharragoekin, hala nola gurasoekin, lotzen dituzte. Beraien esperientziari dagokionez, ordea, euskal gatazka modu immaterial samarrean hautematen dute, sentimendu eta aurreiritzi gisa.

Iraganaren berreraikuntzari dagokionez, argi ikusi genuen zenbaterainoko garrantzia duten norberaren eta familiaren esperientziek: familiako edo ingurune hurbileko norbaiten anekdotak edo gertaerek —istorio-kontakteta moduan transmititu ohi baitira— zeharo



baldintzatzen dituzte nerabeek gatazkaren historiari buruz dituzten buru-ereduak, istorio horietan garrantzitsuak izan ziren ekintza, aktore edo egoera batzuk erabat nabarmenduz. Istorio horiek eta gaur egungo gatazkek zeharo baldintzatzen dituzte iraganari buruzko narratibak; horrek frogatzen du iragan gehiena kontatzailearen oraingo gizarte-egoeratik abiatuta berrinterpretatzen eta berreraikitzen dela eta, eskuarki, norberaren aurkezpen positiboa egiteko joera dagoela.

Jakintza zehatzen transmisioari dagokionez, batik bat gatazkako indarkeriazko gertaerek iraun dute gazteen oroimenean, eta ez alde politikoak: alderdi politikoen ilegalizazioa, bake-prozesuak eta *eragin txikiko* beste gertaera batzuk ezezagun samarrak dira haientzat. Bestalde, ETaren atentatu nagusietako batzuk, biktima asko edo oso biktima ezagunak utzi zituztenak, hobeto gogoratzen dituzte. Gainera, alde handia dago 1978aren aurretik jazo ziren gertaerei eta urte horren ostean gertatu zirenei buruzko diskurtsoetan; hain zuzen, eskolan ikasitako diskurtsoak etxean edo gizarte-ingurunean ikasitako diskurtsoak baino ziurtasun handiagoarekin errepikatzen zituzten. Ondorioz, hezkuntzak memoriaren transmisioan duen garrantzia azpimarratu behar dugu, nerabeek eskolan jasotakoa oro har *egia objektibotzat* jotzen dutelako eta, zalantzan jarri gabe, berdin-berdin errepikatzen dutelako.

Azterlan honek ikerketa sakonagoak eta galdera berriak egiteko bidea urratzen du. Alde batetik, ikusi dugu, zehatz-mehatz deskribatzerik izan ez arren, nola transmiti daitezkeen jarrerak komunitate epistemologiko baten barruan jakintza jakin batzuk kanal beretatik igaro gabe: hau da, nola iraun dezaketen iraganari buruzko sentimenduek gertaera historiko zehatz bati benetan lotuta egon gabe. Hori gaia sakonago aztertzen jarraitzeko hipotesi berri bat izan liteke.

## 7. Bibliografia

- Aguilar Fernandez, P. (1998). La guerra civil española en el discurso nacionalista vasco. Memorias peculiares, lecciones diferentes. Hemen: *La transición en el País Vasco y España: Historia y memoria*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Bakhtin, M. (1979). *Estética de la creación verbal*. Mexiko: Siglo XXI.
- Begiristain, E. (2014ko ekainaren 12an). 220 atentatu, argitu gabe. *Berria*. Hemendik eskuratuta: [https://www.berria.eus/paperekoa/1834/002/001/2014-12-06/220\\_atentatu\\_argitu\\_gabe.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1834/002/001/2014-12-06/220_atentatu_argitu_gabe.htm)

- Bourdieu, P. (1986). The Forms of Capital. Hemen: *Handbook of Theory and Research for the Sociology of Capital*. New York: Greenwood Press.
- Bourdieu, P. (2008). *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Akal.
- Calsamiglia, H. eta Tusón, A. (2012). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso* (3. arg.).  
Bartzelona: Editorial Planeta.
- De Cilia, R., Reisigl, M. eta Wodak, R. (1999). The Discursive Construction of National Identities.  
*Discourse Society*, 10(2), 149-173.
- Kultura Saila: Gazteei eta Gatazkari Buruzko Nazioarteko Konferentzia (2017). *Memoria IV Gazteei eta Gatazkari Buruzko Nazioarteko Konferentzia: Oñati, 2007ko urriaren 18tik 20ra / Memoria de la IV Conferencia Internacional sobre Juventud y Conflicto: celebrado del 18 al 20 de octubre de 2007 en Oñati*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Devine, P. eta Schubotz, D. (2010). “Caught up in the past”? The views of 16-year olds on community relations in Northern Ireland. *Shared Space*, 10, 5-22.
- Etxeberria, F., Martín Beristain, C. eta Pego, L. (2017). *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960 y 2014*. Kriminologiaren Euskal Institutua.
- Euskadi Ta Askatasuna (2011ko urriaren 20an). Comunicado de ETA sobre el fin de la actividad armada. Gara.
- Fairclough, N. (1992). *Discourse and Social Change*. Cambridge: Polity Press.
- Fivush, R. (2010). Speaking silence: The social construction of silence in autobiographical and cultural narratives. *Memory*, 18(2), 88-98.
- Fonseca, C. (2014). *1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena Euskal kasua* (1.-67. or.). Eusko Jaurlaritza - Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Hemendik eskuratuta: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/Terroristen%20atentatuen%20txostena.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Terroristen%20atentatuen%20txostena.pdf)
- Foucault, M. (1970). *El orden del discurso*. Bartzelona: Tusquets.
- Galtung, J. (2003). Violencia cultural. *Gernika Gogoratzuz*, 14.
- Halbwachs, M. (2004). *La memoria colectiva*. Zaragoza: Prensas Universitarias Zaragoza.

- Idoiaga, P. eta Ramírez de la Piscina (2002). *Al filo de la (in)comunicación: prensa y conflicto vasco*.  
 Madril: Fundamentos.
- Jäger, M. (2004). *Diskursanalyse: Ein Verfahren zur kritischen Rekonstruktion von Machtbeziehungen*. Hemen: *Hanbuch Frauen- und Geschlechterforschung: Theorie, Methoden, Empirie*. Wiesbaden: Verlag für Sozialwissenschaften.
- Lederach, J. P. (1998). *Construyendo la paz: Reconciliación sostenible en sociedades divididas*.  
 Gernika-Lumo/Bilbo: Bakeaz / Gernika Gogoratuz.
- Lemke, J. L. (1995). *Textual politics: Discourse and Social Dynamics* (1. arg.). Londres: Taylor & Francis.
- Lizarralde, A. (2017). *Boluntario baten ibilerak, eta beste*. Oñati: egileak argitaratua.
- Martín-Zorraquino, M. A. eta Portolés, J. (1999). Los marcadores del discurso. Hemen: I. Bosque eta V. Demonte, *Gramática descriptiva de la lengua española* (4051.-4213. or.). Madril: Espasa.
- Murua Uria, I. (2015). The End of ETA: errelatuaren borroka akademian. *Jakin*, 209, 101-116.
- Nora, P. (2002). L'avènement mondial de la mémoire. *Transit*, 22, 1-8.
- Reidy, C. M., Taylor, L. K., Merrilees, C. E., Ajdukovic, D., Corkalo Biruski, D. eta Cummings, E. M. (2015). The political socialization of youth in a post-conflict community. *International Journal of Intercultural Relations*, 45, 11-23.
- Shahzad, F. (2011). Collective memories: A complex construction. *Memory Studies*, 5(4), 378-391.
- Uson Gonzalez, I., Urrutia Asua, G. eta & de la Cruz Ayuso, C. (2017). *Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa* (1.-42. or.). Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua.
- Van Dijk, T. A. (1987). *Communicating racism*. Newbury Park, CA: Sage.
- Van Dijk, T. A. (2005). Política, ideología y discurso. *Quórum Académico*, 2(2), 15-47.
- Van Dijk, T. A. (2003). The Discourse-Knowledge Interface. Hemen: *Critical Discourse Analysis. Theory and Interdisciplinarity* (85.-108. or.). New York: Palgrave Macmillan.
- Van Dijk, T. A. (2008). Text, context and knowledge. Hizkuntza Naturalaren Prozesamenduari eta Zientzia Kognitiboari Nazioarteko 5. Lantegian (Bartzelona) aurkeztua.
- Van Leuwen, T. eta Wodak, R. (1999). Legitimizing immigration control: a discourse-historical analysis. *Discourse Studies*, 1(1), 83-117.

- Velte, S. (2016). La representación de los presos políticos vascos en la prensa española (2011-2016). *Discurso & Sociedad*, 10(3), 491-544.
- Weiss, G., & Wodak, R. (arg.). (2003). *Critical Discourse Analysis. Theory and Interdisciplinarity*. New York: Palgrave Macmillan.
- Whitfield, T. (2014). *Endgame for ETA: Elusive Peace in the Basque Country*. Oxford: Oxford University Press.
- Wilches Tinjacá, J. A. eta Hernández Pérez, M. (2016). Jóvenes universitarios: percepciones y encuestas sobre conflicto armado y paz en Colombia. *Reflexiones*, 95(2), 33-55.
- Wodak, R. (2006). Mediation between discourse and society: assessing cognitive approaches by CDA. *Discourse Studies*, 8(1), 179-190.
- Wodak, R. (2011). La historia en construcción/ La construcción de la historia. La “Wehrmacht alemana” en los recuerdos colectivos e individuales de Austria. *Discurso & Sociedad*, 5(1), 160-195.
- Wodak, R. eta Fairclough, N. (1997). *Critical Discourse Analysis. Hemen: Discourse Studies. A multidisciplinary introduction. 2. bol. Discourse as social interaction (258.-284. or.)*. Londres: Sage.